

7. ARIKETA

Gure historia da etorkizuna (Estes 2020) liburuko 7. atala irakurri eta gero, behean dagoen aukera anitzeko proba egin. Hausnarketa galdera erantzuteko, gogora ezazu J. Azurmendik bere testuan (2011) zer esan zuen.

1. Estes-en arabera, erresistentzia indigenaren arbasoak borrokatu ziren...

- A. kolonialismoaren aurka.
- B. bizitza indigenaren alde.
- C. bidezko harremanak izateko senide gizatiar eta ez-gizatiarrekin eta bizitzarekin.
- D. (aurreko guztiak)

2. "Askatasun indigena", kontzeptu gisa,...

- A. existitzen ez den toki bat da (utopia bat).
- B. toki bat da, une batez #NoDAPL kanpamentuetan gorpuztu zena.
- C. bateragarria da beste askatasun kontzeptu guztiekin.
- D. erlazionaltasunaren aurkakoa da.

3. #NoDAPL kanpamentuak antolatu ziren...

- A. janaria eta lege-aholkularitza ordaintzeko.
- B. beharren arabera; doako janaria, hezkuntza, osasun-arreta eta lege-aholkularitza bermatzeko parte hartzaile guztiei.
- C. irabaziak banatzeko; eta janaria, hezkuntza, osasun-arreta eta lege-aholkularitza bermatzeko indigena guztiei.
- D. armak eta atxilotuak ezkutatzeko.

4. Estes-ek dioenez, Obamaren administrazioaren garaian beltz-jendeen aurkako polizia-indarkeria...

- A. areagotu zen.
- B. gutxitu zen.
- C. ez zen sakonki areagotu, ezta nabarmen gutxitu ere.
- D. ez du zerikusirik Black Lives Matter mugimendurekin.

5. #NoDAPL borroka babestu zuten...

- A. hainbat erlijio-taldek.
- B. justiziaren aldeko nazioarteko erakundeek.
- C. beterano militarrek.
- D. (aurreko guztiek)

6. Kolonialismoak mendeetan zehar egindakoa desegin dezake bakarrik...

- A. kapitalismo berde batek.
- B. politikari demokraten eta errepublikarren batasunak.
- C. lur eta bizitza ebatsien berreskurapenean oinarritutako aldaketa erradikal batek.
- D. (ezin du ezerk desegin)

Hausnarketarako galdera: **Filosofia unibertsal baten aldamiarik gabe, zer ote da gaur egun borroka, utopia, itxaropena... pentsatzea?**